

Dantzaguneak martxan jarritako egoitza programari esker, hautatutako dantza konpainiak euren lanak garatzeko behar duten espazioaz

baliatu dira. Horien inguruan prestatutako jaialdiari esker, berriz, lanak publikoari erakusteko aukera ere izaten dute.

Sortutakoak programako lanak aurkeztuko dituzte asteburuan

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

Dantzaguneako Sortutakoak programa dantzaren sorkuntza prozesu osoari bultzada bat emateko jaio zen. Aukeratutako dantzariek euren ideiak garatzeko espazio bat dute horrela, eta egonaldia amaitzean egiten duten jaialdian horiek publikoari erakusteko aukera dute. Aurretik programa honetan parte hartu duten dantziarik ibilbide zabala izaten ari dira, ez bakarrik Gipuzkoan edo Euskal Herrian, baita nazioartean ere.

Orain arte zazpi deialdi egin dituzte (horietatik lau dantza garaikideari zuzendurikoak, bi euskal dantza tradizionalari eta beste bat Kanarietako konpainiekin batera). Dantza garaikidearen deialdi bakoitzean bi konpainia hautatzen dituzte, eta tradizionalenak bakarra; 2013an bi deialdi egin zituzten garaikiderako, beraz, lau konpainia aritu ziren Dantzagunean, beste batek dantza tradizionalaren gaineko ikerketa egin zuen eta azken batek, Kanarietan izandako lehiaketa batean Dantzagunean egonaldia egiteko eskubidea lortu zuen. Sei konpainia guztira.

2013ko hiru partaidea

2013an hautatuak izan ziren sei konpainia horietatik hiruk hartuko dute parte bihar eta etzi Sortutakoak jaialdiaren bigarren edizioan. Ostralean Donostiako Egia auzoko Reflex gu-



Aldundiko, Dantzaguneako eta Reflex guneako ordetzariak, Lasala konpainiako dantzariek. JUAN CARLOS RUIZ | ARGAZKI PRESS

nean Xabier Iriondok zuzendutako "Homing" film laburra estreinatuko dute ahozbarra kentzeko aurrerapen moduan. Dantzaren bitartez neskak batetik mundu basati batetik gizarte-bizitzara egiten duen bidaiak kontatzen du honek.

Larunbata izango da, ordea, jaialdiaren egun nagusia. 2013ko edizioetan aukeratuak izan ziren Iker Arrue eta Vicente Arlandis kanpoan daude lanean; beraz, ezin izango dira Donostian izan. Andoingo Axeri Dantza Taldeak ere beste konpromiso bat dauka, eta honen ordez,

iazko dantza tradizionalako egoiliarak hartuko du parte: Mikel Sarriegik "Sanjoanetako neskakten sokadantza Beasalenen" ikerketaren bideoa proiektatuko du. Egitaraua zuzeneko hiru dantza emanaldiek osatuko da: Eneritz Zebertoren "On", Alioune Diagne sortzaile senegaldarraren "This line is my path" (Kanarietan martxan jarritako lankidetzaren fruitua) eta Lasala taldearen "Hooked (still)".

Azken honetako kide Judith Argomaniz jaialdiaren aurkezpenean izan zen eta aipatu zuen

eskertuta dagoela Dantzaguneari etxean lan egiteko aukera emateagatik eta, gainera, egindako lanari ikusgarritasuna emateagatik. «Gure lanak agertokira eramatea ez da erraza», aitortu zuen.

Dantzaguneak, Gipuzkoako Diputazioaren laguntzari esker, sortzaile txikiel bultzada ematen die. «Feedback-a garrantzitsua da. Horri esker dakigu honelako jaialdi baten beharra zegoela, artistek euren lanak erakusteko aukera izan zezaten», azaldu zuen Dantzaguneako kide Ana Remirok.

Musikaren egokitasunak



Ritxi AIZPURI
Musika argitaratzailea

Testu bati alde-ekin ekitea idazlari berari indarra kentzea dela pentsa daiteke. Zeharkako galderekin hasita badirudi ez doala zuzen esan nahi den gauza horretara. Umetan esan ohi den lehenbiziko hitzetakoa «ez» omen da. Testua ezeko batekin hasita eman dezake umekeriaren gabilzala edo ezkorrak garea. Esan nahi denari itzulinguru gehiegi eman ondoren, ondoeza txerta dakioket irakurleari. Zuzenena argi adieraztea izango litzateke lehen leerotik, horrela testua ulerkorragoa egingo da. Kantuetan berdin jokatzea izan dalteke komenigarriena. Ahalik eta garbien utzi beharko litzateke entzuleari kantuarren esanahia, mamia eta leloa. Maiz hasiko gara galdera batekin, edo ezeko esamoldearekin, zeharkakoak ahaizu gabe. Ez dira kontraesanak, egilearen eskuetan ideiek nola egin dezaketen eztanda ikusteko dira. Musikariek doinuak sortutakoan transmititu egin nahi dituzte. Estreinato transmisioa norberaren buruari egingandakoa litzateke, eta gero publikoari helarazitakoa abestia. Ez derrigorrez, baina kantu batek ahalik eta publikorik gehien bereganatzea izango du xede. Hainbat kantuk badute gaitasun hori, *singleak* dira. Kantuei, ordea, noizbehinka egokitzapenak edo aldatetok egitea ongi datorkie indartsuago eta errazago sar daitezen entzuleengan, komertziala izan edo ez. Egokitzapen horri *radio edit* esaten zale. Baina egileek maiz ez dituzte oso gustuko izaten kantuari egindako aldatetok kantua desbtxuratu egin dezaketelako. *Radio edit* horiek gehienetan dakartena da kantua sarrago irratian jarzea eta ospea irabaztea. Estatuaren zentsura dela medio, hainbat hitz moztu behar izaten denean haserrea baino ez du eragiten. Oraindik zentsura hori AEBetan indarrean dago eta bestela, «parental advisory, explicit lyrics».

José Luis García Barrientos gana el VI Premio Internacional Artez Blai

GARA | DONOSTIA

El trabajo titulado "La Razón Pertinaz. Teoría y Teatro Actual en Español", del filólogo José Luis García Barrientos, ha sido el ganador del XI premio Internacional Artez Blai de Investigación sobre las Artes Escénicas.

El jurado, compuesto por Berta Muñoz, Borja Ruiz y Carlos Gil, decidió conceder este premio por unanimidad tras analizar las doce obras presentadas por considerar «que se puede convertir una referencia para quienes se acercan al teatro

contemporáneo ya que aborda muchos temas y autores cruciales de manera panorámica y cuenta las bases teóricas para acercarse a ellos de manera seria y rigurosa, pero escrito de manera amena y asequible a un público mucho más amplio que el específicamente dedicado a la investigación».

El premio lo concede la Asociación Cultural Artez Blai con el patrocinio de la Diputación de Bizkaia. El trabajo será publicado en un libro dentro de la colección "Teoría y práctica" de la propia editorial Artezblai.

«Guernica 1913» lanak Estatu espainoleko Antzerki Garaikidearen saria jaso du

GARA | DONOSTIA

Banarte Antzerki Taldeak ekoiztitako azken lanak, "Guernica 1913" antzezlanak, 2013ko Estatu espainoleko Antzerki Garaikide Sari Nagusia lortu du. Obra benetako gertaeretan oinarrituta dago, Txato Etxaniz Gernikazarra elkarteko kideak egindako ikerketetan jasotako informazioari esker. Gidoia Rafa Heceren da, eta Sardo Irsarrik zuzendu du. Ezenografian Jabier Obregon aritu da lanean, eta Etxanizen bera-

ren laguntza izan dute sorkuntza prozesu osoan.

"Guernica 1913" lanak Gernikan izandako klase-borroka berri ematen du, alegia, Esperanza y Unceta lantegiko gerora Asra arma lantegia izango zena langileek 1913ko udazkenean egindako grebaren berri. Hura izan zen Gernikako lehenengo lantegia eta, gertaera hori, lehenengo greba, lehenengo aldarrikapenak, lehenengo eskakizunak aginte-klaseari: bi munduren arteko lehenengo talka.